# BARAKALDO



## ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Armarri ebakia: 1., urdinean Bizkaiko armarria; 2., gorrian hamabi kainoi baltz (4-4-3-1), eta erdi erdibitua urrean; bertan bi otso baltz ibiltari harrapakina ahoan dabela eta paluan.

## AITAMEN HISTORIKOA

Barakaldo XI. mende inguruan agertzen jaku lehenengoz agiri historikoetan, Lopez Vazquezen jaurerri lez. eleizatea nekazari eta olagizonen etxeek eta Zuazo, Susunaga, Zibileta eta Lutxanatarren leinuen dorretxeek osatzen eben.



XIV. mendean, Don Telloren sasoian eta beronek emondako pribilegio bidez, Barakaldo, ordura arte Enkartazioen barruan egon zana, Bizkaiko Jaurerrian sartu zan, Gernikako Batzar Nagusietan 33, eserlekua eta botoa zituala.

Aialako jaunek Barakaldoren jurisdikzioa zabaldu eben Lutxana eta Bilboko itsasadarreraino sasoi haretan. Ibaian Barakaldok zergak kobratzen zituan barkuak pasatzean, izan be, horretarako katea bat eukan ibaiaren alderik alde Erandio eta Barakaldoren artean.

XVI. mendetik XVIII.era, Barakaldon ekonomi jarduera nagusiak nekazaritza eta burdinolak ziran, hain zuzen be, lurrazpia oso aberatsa zan mineraletan eta.

Dana dala, garapenik garrantzitsuena XIX. mendearen bigarren erdina eta XX. mendean gertatu zan, udalerriari itxura barria emonaz.

## DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

Escudo cortado: 1º, en campo de azur las armas de Bizkaia. 2º, de gules doce cañones de sable (4-4-3-1), medio partido de oro dos lobos andantes de sable, cebados y en palo.

## RESEÑA HISTÓRICA

Barakaldo aparece por primera vez en documentos históricos hacia el siglo XI, como señorío de López Vázquez. Algunas viviendas de labradores y ferrones y las torres de los linajes de Zuazo, Susunaga, Zubileta y Lutxana, componían la anteiglesia.

En el siglo XIV, en época de don Tello y por privilegio del mismo, Barakaldo, que hasta entonces estaba comprendido dentro de las Encartaciones, pasó a pertenecer al Señorío de Bizkaia, ocupando el voto y asiento número 33 de las Juntas Generales de Gernika.

Los señores de Ayala prolongaron su jurisdicción, en esa época, hasta Lutxana y la ría de Bilbao, en la que cobraban impuestos al paso de los barcos, tendiendo, para ello, una cadena de lado a lado de la ría entre Erandio y Barakaldo.

Durante los siglos del XVI al XVIII, Barakaldo vive fundamentalmente de la agricultura y de sus ferrerías, posibilitadas por la existencia de un subsuelo rico en minerales.

Pero será en la segunda mitad del siglo XIX y en el XX cuando se produzca el desarrollo más importante del municipio, confiriéndole su nueva fisonomía.